



UDAL INFORMAZIOA 2020KO ABENDUA

AUZOLANA

Ezohiko urte hau ere badoa, eta Udaleko Auzolan Batzordetik aurtengo auzolanaren balorazioa egiteko aprobe txatu nahiko genuke. Berriz ere **eskerrak** eman nahi dizkizuegu zuen borondate osoarekin **auzolaneari aritu zareten herritar guztiei**, modu batera edo bertзера, herrigunean eta baserri auzoetan egin duzuen guztiagatik, emaitza bistakoa baita.

Baina hainbat bilera egin ondotik, Auzolan Batzordean hutsune batzuk sumatu ditugu eta horiei soluzioa emate aldera, irizpide jakin batzuk zehaztea erabaki dugu. Oroitarazi nahi genuke **18 eta 55 urte bitarteko herritar guztiok** egin behar dugula auzolana, ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoek izan ezik, ezta preso daudenek ere. Herritar **bakoitzari** urtean **10 orduko** saioa dagokigu. Eta hori guztiok egiten dugula bermatzeko, **herritar bakoitzak urtero garai bertsuan auzolan berdina** egin beharko dugu. Herrigunean eta auzoetan auzolana antolatzeko izendatuak diren arduradunak arduratuko dira hori horrela dela ziurtatzeaz.

Bakoitzak urteroko bere auzolana izan dezagun, **auzolanak multzotan** banatzea erabaki da:

1. Eskolako auzolana.
2. Herriko bidexketan mantentze-lanak.
3. Emakumeen Memoriaren Baratzean auzolana.
4. Herriko iturrien mantentze-lanak.
5. Larre erretzeak.
6. Auzoetako auzolanak.

Herritarrak multzo horietan banatu ditugu eta bakoitzak agudo jakinen du zein multzotan egin beharko duen bere auzolana. Norbaitek bertze multzoren batean nahiago izanez gero, arduradunari erran eta aldatzeko aukera izanen du.



AUZOETAKO AUZOLANAK

Aunitz zarete lehendik auzo bakoitzean desbrozatzeko-lanak egiten aritzen zaretenak. Zuen kasua hori baldin bada, orain arte egiten duzuen auzolanarekin segitu ahal izanen duzue. Hori bai, arduradunentzat auzolanaren jarraipena egitea errazagoa izan dadin, **auzolan hori urtean guttienez bi aldiz** egin beharko da: lehenbiziko saioa ekain erditsurako eta bigarrena herriko besten aitzinetik.

Garbi utzi nahi dugu Auzolan Batzordearen helburua herritarrok auzolana egitea dela, lehen ere maiz erran dugun bezala, gutako bakoitzak pixka bat eginez aunitz lortzen baita. Auzolana egiten ez duen herritar bakoitzak urtean 100 euroko ekarpena egin beharko dio udalari, baina hori azken aukera izatea nahi genuke.

GOSARIA

Udalak, bere aldetik, auzolana egitean gosaria emanen die herritarrei, beti ere, bi baldintza hauek betetzen badira:

1. Auzolan horretan sei lagun baino gehiagok parte hartzen badute.
2. Auzolana egin aitzinetik dagokion arduradunari edota zuzenean herriko etxera deituta auzolana egin behar dutela abisatzen badute, parte hartuko dutenen izen-abizenak jakinaraziz.

ESKERRAK AUNITZ DENOI !